



sagardotegiak sagardo gipuzkoa

ByHur sagardoa bigarren Asturiako SISGA lehiaketan

2014-10-08 | Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea

Astarbe sagardotegiko ByHur sagardoa bigarren SISGA sagardo lehiaketan, apardunen sailean.



Asteburuan izan da Asturiasen SISGA sagardo berezien lehiaketa eta bertan parte hartu du Astarbe sagardotegiak, ByHur sagardo apardunarekin. Apardunen sailean lehen saria lortzetik oso gertu gelditu da, Astarbeko sagardoa, irabazlearengandik 0,20 punturen aldea besterik ez baitu izan. Canariar uharteeetako Posma sagardotegiak lortu du lehen saria. Astarbek domina lortu du eta gustora etorri da Astigarragara bueltan Hur Astarbe, beren sagardoak izan duen harrera ona dela eta.